

Kontzeju

www.oiñotzi.eus



Berria Oñotzi



@BerriaOñotzi



oiñotzi@oiñotzi.eus



945 41 11 11

Oñotiko Udal aldizkaria | 2018ko urtarria | 279. zenbakia



ESKOLA OSTATU BIHURTU

Auzoa biziberritzeko abiapuntua izan daitekeela uste dute

NAHI DUTE ARAOZTARREK



Neskatilen eskola ostatu bihurtu nahi dute araoztarrek

» Taberna, jangela eta hiru apartamentu turistiko izango lituzke



Proiektu potoloa dute esku artean araoztarrek. Eliz aurrean dagoen eraikina (288m²), neskatilen eskola izandakoa, ostatu bihurtu nahi dute, taberna eta jangela zerbitzuekin, eta hiru apartamentu turistikorekin. Araotzek dituen bi premia handiri erantzun nahi die proiektuak: batetik, auzora doazen bisitariei ate bat zabalik eskaintzea; eta, bestetik, gainbeheran datorren auzoari arnasa ematea. Gaur egun 53 bizilagun ditu Araotzek (orain dela ehun urte 560 ziren), eta zer edo zer egin beharra dago auzoaren eroriari aurre egin nahi bazaio. Ostatuak ez du hori bermatzen, baina auzoaren bihotza indartuko luke, eta abiapuntu bat izan daitekeela uste du auzoak.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTIAN KO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERRAK, LUB FLOTANTEAK, ABIGAIK, PINTURA LANAK...



WISEMATZAILA ETA MONTATZAILA

SUKALDEAK, BORDAKA eta ASKOZ GENGAK

OLAKUA 12 B 4 ed. • 20680 OIATZ • GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Koldo Zumalde, Luis Zumalde eta German Urkia / Araozko auzo batzordeko kideak

“Bi premia nagusiri erantzungo die ostatuak: kanpotik datorrenari ate bat zabalik eskaintzea, eta auzoari arnasa ematea”

Larre berdeak eta etxe zuriak dira nagusi oraindik ere Araotzen. Baina, noiz arte? Horixe da auzotarren kezka. Gaur egun 53 lagun besterik ez dira bizi bertan (duela ehun urte 560 ziren) eta gainbehera dator auzoa, nola edo hala langa ipintzen ez bazaio. Eta horixe da, hain zuzen, araoztarrek esku artean duten proiektuaren helburua. Neskatilen eskola zaharra ostatu bihurtuta, auzoaren bihotza indartuko da, eta auzoa berpizteko abiapuntua izan daitekeela uste dute.

Neskatilen eskola izandako eraikina ostatu bihurtu nahi duzue. Zergatik?

Bi arrazoi nagusirengatik. Alde batetik, kanpotik datorrenari ate bat eskaintzeagatik. Gaur egun ez dago ostatu zerbitzurik Araotzen. Komunik ere ez dio eskaintzen bisitariari. Egoera penagarria da. Eskalatzaileak direla, mendizaleak direla... jende asko hurbiltzen da hona, eta horiei zerbitzua ematea da arrazoietako bat.

Beste arrazoia da, auzoaren gainbeherari langa ipintzea. Elizondon ostatu bat ipinita auzoaren bihotza indartuko litzateke, eta horrek arnasa emango lioke Araotzi. Auzoa

biziberritzeko hobe litzateke nekazaritza edo abeltzantzarekin lotutako aktibitatearen bat abian jartzea, baina, oraingoz, gure ahaletatik kanpo dago hori, eta ostatu abiapuntu bat izan daitekeela uste dugu. Horrek ez du bermatzen auzoa biziberrituko denik, baina abiapuntu bat izan liteke, espiralaren bihotza indartzea.

Hain kezkarria da auzoaren egoera?

Bai. Datuak oso argigarriak dira: gaur egun 53 lagun bakarrik bizi dira Araotzen, eta horietako hamabik 80 urte baino gehiago dute.

Zorionez, araoztarrek leialtasun handia diote auzoari,

(Hurrengo orrira)



Zerbait egin beharra dago auzoaren gainbeherari langa ipintzeko



Etxe-Aundi
Hotela Jantokia **
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com





eta asko kalean bizi badira ere, eutsi egiten zaie baserriei eta inguruei. Baina zenbat gehiago iraungo du belaunaldi transmisio horrek? Horixe da galdera.

Azken bi urteetan lau haur jaio dira Araotzen, eta hori oso albiste pozgarria izan da, baina, oro har, egoera oso kezagarria da, eta zerbait egin beharra dago auzoaren eroriari stop esateko.

Zein ezaugarri izango ditu ostatuak?

Beheko solairuan sukaldea, taberna, jantokia, komunak eta apartamentu txiki bat izango luke. Eta goiko solairuan beste bi apartamentu turistiko.


Hasieran, goiko solairuan literadun aterpe bat ipintzea aztertu genuen, baina ikusita Arantzazun zabaldu dutela halako bat, baztertu egin genuen aukera hori. Gainera, turismo arloko adituek diote gaur egun, batez ere, apartamentuak eskatzen dituela jendeak (kuadrilak, familiak...).

Bideragarria da era honetako ostatu bat Araotzen?

Guk uste dugu baitez. Bolada batean egin genuen Araotzera datozen bisitarien eta beraien eskabideen kontrola, eta guk ikusten dugu soldata bat, behintzat, ateratzeko bidea taberna eta jangela zerbitzuen bidez; apartamentuena osagarri bat izango litzateke.

Ostalaria ostatuan bertan biziko litzateke, errenta baten truke, baina ostatuagatik ez genioke ezer kobratuko. Guk eskatuko dioguna da, asteburu, jai egun, zubi eta oporraldietan atea zabalik eskaintzea bisitariari eta auzotarrari.

Potentzialtasun asko ditu Araotzek (eskaldak, mendia, espeleologia, ehiza, arrantza, mikologia, Arrikrutz...) eta, jakina, ostalariaren ekimenaren arabera ere izango da, hein batean proiektuaren arrakasta.



Biztanleria gainbehera

Berrogeita hamahiru lagun bizi dira egun Araotzen. Ez dago soldata biderik eta jendeak ospa egiten du

1857	525
1913	488
1930	560
1940	540
1955	496
1960	357
1975	148
1986	88
2000	54
2005	45
2017	53

OSTATU PROIEKTUA



BEHE SOLAIRUA: taberna jangela eta apartamentu bat



GOIKO SOLAIRUA: bi apartamentu turistiko

Iturria: Koldo Etxegarai arkitektoa



500.000 euroko aurrekontua du ostatuak.

Udala prest dago 200.000€ inbertitzeko, baina proiektuak aurrera egiteko ezinbestekoa da Jaurilaritzak esku hartzea

500 mila euroko aurrekontua du proiektuak. Nola egingo diozue aurre?

Lau hankako mahaia behar da, proiektu honek aurrera egingo badu: Jaurilaritza, Aldundia, Udala eta Auzoa.

Oñatiko udala prest dago 200 mila euro inbertitzeko proiektuan. Jaurilaritzako Landa Garapeneko zuzendariarekin ere egin ditugu bilera pare bat (Araotzera ere etorri zen) eta oso interesatuta dago. Guk espero dugu aurrekontuaren erdia bere gain hartzea gobernuak, *Erein* programaren bidez. Foru Aldunditik zerbait etorriko den itxaropena ere badugu, eta gainerakoa auzoak jarriko luke.

Oraingoz udalak urrats handia eman du kopuru hori izendatuta, baina proiektuak aurrera egiteko ezinbestekoa da Jaurilaritzak esku hartzea.

Auzoa bat eginda dago ostatu proiektuaren inguruan?

Bai. Maiatzeko batzar berezian aurrera egitea erabaki zuen auzoak aho batez. Egia da, orain zenbakiak datozela, eta zenbaki potoloak direla. Duela bi urte etxe bakoitzak mila euro ipini zituen (gehi dozenaka auzolan ordu) neskatalen eskolari erreteila egiteko, eta ezin diogu eskatu berriro diru ekarpen handia egitea. Guk espero dugu diputaziotik laguntzaren bat iristea auzotarren karga arintzeko. Bestela, beste bide batzuk jorratuko genituzke (krreditua, ondasun salmenta...). Baina auzoak borondate sendoa du proiektu honen alde.



1934ko eraikina

Araotzeko neskatalen eskola 1934ko eraikina da. Garai hartan 540 biztanle zituen Auzoak, eta gela bakarrean biltzen ziren neska-mutiko guztiak. Eraikin berria (288m²) neskatalen eskola bihurtu zen, maistrentzako etxebizitza eta guzti. Eraikuntza lanek 32.000 pezetako kostua izan zuten. Diputazioak 10.000 ipini zituen, udalak 6.000, eta auzoak 16.000 (auzolanean gehiena).

1971n, garai hartako Kontzentrazio Eskolarra medio, Araozko eskola biak itxi eta Oñatira jaisten hasi ziren auzoko 35 eskola umeak. Garai hartan 200 biztanle inguru zituen Araotzek. Beste auzo eta herri askorentzat bezala, eskola kentzeak sekulako eragina izan zuen. Marra gorri bat.

Hor geratu zen eskola, txori etxe, urtean-urtean okerrago. Tarteka, Oñatiko ikastolak umeentzat antolatutako egonaldiak egin izan ziren bertan, baina urteen joan-etorriarekin eraikinaren egoera okerragotuz joan zen.

ERRETEILA AUZOLANEAN

2015ean eraikina hustu eta teilatu berria egin zioten auzotarrek, esfortzu ekonomiko handia (70.000€, gehi dozenaka auzolan ordu) eginez. Gaur egun dotore, apain eta sendo dago eraikina.

Eraikinaren jabetza Gipuzkoako Foru Aldundiarena izan zen eskola jarduna amaitu arte. Ondoren Oñatiko udalarena zenbait urtez, eta, gaur egun, Araozko auzoarena da.



2015ean, eraikina hustu eta teilatu berria egin zioten auzotarrek auzolanean

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jalone San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
 OÑATI



Belaskua Txakolina

» Etxeko mahatsez egindako txakolina merkaturatu du Jon Urzelaik

Ia hamar urte dira Belaskuan mahatsa landatzen hasi zirela, eta aurren, azkenean, ametsa egi bihurtuta ikusi du bertako seme Jonek: etxeko izena darman txakolina merkaturatzea.

Bi hektarea pasatxo mahats landara dituzte Belaskuan, eta uzta oneko urteetan 25.000 kilo mahats batzen dituzte, beste hainbeste txakoli botila egiteko adina.

Iaz arte, *Getariako Txakolina* sor-markako upategi ezberdinei saldu izan die mahatsa, baina, iaz, produkzioaren zati bat etxeko etiketarekin saltzen hasia erabaki zuen Urzelaik. “Produktore moduan, gauza ederra da zure lanaren emaitza



**“Txakoli modernua da guria, orekatua.
Betiko txakoliñak baiño gradu gehixuau
dako, eta azidotasun maila baxua”**

ikusi eta dastatu ahal izatia” aitortu digu Jonek. “Gaiñera, profesionalki komertzial lanian ibili naiz bizi danian, eta erronka pertsonal moduko bat zan neure produktua ataratia”.

TXAKOLI MODERNOA

Txakoli modernoa. Halaxe definitzen du Urzelaik, etxeko ardo berria. “Betiko txakoliñak baiño gradu pittin bat gehixau dako (11,5-12 gradu artian), eta azidotasun maila baxuagoa. Edateko samurra da, freskoa eta orekatua. Publiko danairi gustaitteko moduko arda da, txakoliñaren txispa berezia eta nortasuna dakona”.

Podaren bitartez, mahastien

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LINABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 linabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

produkzio maila kontrolatuz, kalitatearen aldeko apustua egin nahi dute Belaskuan, eta gustura daude emaitzarekin. “Probau dauenak oso gustura edan dau, eta uste dot harrera ona euki dauela”.

Geretak egiten du Belaskua txakolinaren banaketa, eta, dagoeneko herriko zenbait taberna, jatetxe eta dendatan dago aukeran.

INGURUAREKIKO KONPROMISOA

Urtarrilean, 2017ko txakolina merkaturatzearekin batera, www.belaskua.com webgunea ere zabalduko du Jonek, etxearen historia eta txakolinarekin izan duen lotura azalduz, besteak beste. Sorpresaren bat ere egongo da historia horretan.

Belaskua baserria 1656an agertzen da lehenengo aldiz oraingo izenarekin, baina 100 urte lehenago ere hor zegoen ‘Goitia’ bezala. Salerosketa kontratuan (1640) aipatzen da kupela bat ondasunen artean. Geraoago, XVIII. mendean etxeko eskriturretan agertzen da garai hartarako bazeudela mahasti sailak etxe inguruan.

Eta hori ere bada, jakina, txakolina egitera bultzatu duen arrazoietakoa bat, Jonek azaldu

Oñati, Gipuzkoako laugarren herria mahastietan



Historikoki txokolategintzagatik izan da ezaguna Oñati, baina, batek daki, martxa honetan, laister ez ote den izango ezaguna txakoliarengatik. Izan ere, Belaskuako ardoarekin, dagoeneko, Oñatiko mahatsarekin egindako hiru txakolin daude merkatuan (Upaingo eta Murgialdaikoarekin batera).

Gaur egun, Oñatin, bospasei txakoli-zale eta 15 bat hektarea mahats daude, eta, horrenbestez, Gipuzkoako laugarren herria da landatutako mahats kopuruan, Getaria, Aia eta Zarautzen ondoren. Urte askotan desagertuta egon da mahatsa Oñatiko paisaiatik, baina gauza jakina da orain dela 350 urte ere bazirela mahastiak herrian, eta, poliki poliki, berreskuratuz doala ematen du.



digunez. “Neri gustau egitten xat ardau mundua eta, gainera, uste dot baserri inguruan bizi garienok zelabaitteko konpromisua hartzen dogula etxe ingurua mantenituko”.

Apirileko izotzak aurtengo uzta ia osoa hondatu zuen

Garbi dagoena da, txakoli langintzak afizio eta dedikazio handiak eskatzen dituela, eta ez dela diruagatik egiten. “Ez horixe.. Aurtengo uzta, adibidez, oso txarra izan da; apirileko izotzaren ondorioxoz, produkziñuaren %85 inguru galdu geben. 2013ko uzta be txarra izan zan; beraz, bostetik bi txarrak badira.... Baserriko beste aktibitate baten antzekua da hau, lan asko eta etekin gutxi. Egundua osoa zerura -edo telefonora-begira egoten gara apiriletik urrira, izotza ez bada harria, bestela euri larrei eta irailean sikutia”. ■

Bezereen beharrei erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6
Tif.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbiasores.com

www.gualbiasores.com

OIHAL AKROBAZIAK



» Indarra, malgutasuna eta gorputzaren kontrola eskatzen duen jarduera » Oihal akrobaziako talde bat eratu da Oñatin

Zirkoko arteak eta dantza uztartzen dituen aktibitatea da batzuentzat; beste batzuentzat kirola. Kontuak kontu, gero eta gehiago zabaltzen ari den aktibitatea da oihal akrobazia, eta Oñatira ere iritsi da, lau gazteren eskutik. Gaztelekuan prestatu dute jarduera hau aurrera eramateko behar den azpiegitura (oihalei eusteko uztaiak sapaian, 6 metroko

alturan), eta bertan izango dute aurrerantzean zaletasuna hau praktikatzeko aukera, gazteen ordutegitik kanpo.

“Urtebete daramagu oihal akrobazien ikastaro bat egiten Eskoriatzan, baina asteen saio bakarra daukagu, eta sarriago praktikatu nahi dugunez, aukera ezberdinak aztertu ditugu eta Gaztelekua erabiltzeko aukera eskaini digute, gazteak bertan

Gaztelekuan egokitu dute oihal akrobazia praktikatu ahal izateko azpiegitura

ez dauden orduetan”, azaldu digu Carol Maestrok, taldeko kideetako batek.

OSO KONPLETOA

Sabaitik zintzilik dagoen oihal bati helduta, figura eta ariketa ezberdinak egitean datza oihal akrobazia, eta onura asko dituen aktibitatea omen da, Carolek azaldu digunez. “Gorputzeko atal ezberdin asko lantzen dira;



Amaia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

•Zaharberritzeak •Ikuskaritza Teknikoak (ITE) •Ziurtagiri energetikoak (CEE)
•Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak •Barne dekorazioa-Jarduera lizentziak
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 000 ✉ oñati@coinbroker.eus

🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus



Gorputzeko atal asko lantzen dira; indarra eta malgutasunaz gain, buruaren eta goputzaren kontrola, konzentrazioa, auto-ezagutza, memoria, sormena... oso aktibitate konpletoa da



indarra eta malgutasunaz gain, gorputzaren kontzientzia eta buruaren kontrola lantzen dira, eta baita ere konzentrazioa, memoria, auto-ezagutza eta sormena. Oso konpletoa da”.

3-10 metro arteko alturan egiten den aktibitatea izanik, arriskutsuegia dela pentsa liteke, baina ukatu egin digu Carolek. “Era egokian eginez gero, ez da beste edozein kirol baino arriskutsuagoa. Jakin egin behar duzu, noski, zer egiten

ari zaren, eta seguru egon behar duzu egiten duzun horrekin. Horretarako, ikasketa prozesu bat behar da, eta norbaitek erakutsi egin behar dizu zer egin daitekeen oihalarekin eta nola”.

Oso inportantea izaten da, aktibitatea praktikatzeko hasi aurretik gorputza ondo berotzea lesioak prebenitzeko, eta, horretarako yogako posturak egin ohi dituzte, normalean.

TALDE IREKIA

Ez da beharrezkoa baldintza fisiko berezirik oihal akrobazia praktikatzeko. Gauza guztietan bezala, poliki poliki lantzen da gorputza, eta, denborarekin, gero eta postura edo figura gehiago egiten dira, eta gero eta altura handiagoan. Baina, printzipioz, edozein pertsonak egin dezakeen jarduera fisikoa da.

Horregatik, Oñatin sortu berri duten taldea irekia dela azaldu digu Carolek, eta norbait interesatuta balego, zabalik daudela ateak. “Baina garbi geratu behar da, gutako inor ez dela irakaslea. Beraz, norbaitek benetan ikasi nahi badu, hobe da Eskoriatzako ikastaroan hastea, eta gero hemen praktikatzea. Dena den, norbaitek nahi badu probatu zer den oihal akrobazia, lasai etor dadila guregana”.

Carolek eskerrak eman nahi dizkie udalari eta, bereziki, gaztelekuko langileei, jarduera hau Oñatin betan praktikatu ahal izateko emandako laguntzagatik eta eskainitako errez-tasunengatik.



Denda txikien eta emakumeen arteko harreman historikoa aztertuko dute Selma Huxley bekaren bidez

Oñatiko emakumeek historian zehar herriari arlo ezberdinetan -lanean, bizitza sozialean, ekonomian, politikan zein kultura mailan- egindako ekarpenak agerian jartzeko asmoz sortu du udalak *Selma Huxley Barkham* ikerlariaren izena daraman beka. Aurten emango da lehenengo aldiz, eta deialdira aurkeztu ziren hiru proposamenen artean, Irati Garai eta Jone Arrazolak aurkeztutako proiektua izan da aukeratua.

Oñatiko emakumiak errekadutan: XX. mendeko etnografia feminista du izenburua Arrazola eta Garai antropologo gazteek egingo duten ikerketa lanak. Oñati bezalako herri baten garapenean komertzio txikiek izan duten garrantzia, eta sektore hori sostengatu duten emakumeen arteko harremana aztertu nahi dute, hiru ikuspuntutatik: jarduera ekonomiko gisa, jarduera sozial bezala eta lurralde-tasunaren ikuspuntutik.

Bildutako dokumentazioaz gain, herritarrekin egindako elkarrizketak erabiliko dituzte informazio iturri gisa, eta herrian izan diren komertzio txikien inbentarioa ere egingo dute. Eta lan hori osatzeko, argazki zaharrak ere bildu nahi dituzte (harremanetarako: 671 715 321 / 688 612 841).

Selma Huxley bekak 12.000 euroko dotazioa du, eta urtebeteko epea ikerkeat lana burutzeko.



URTARRILAREN 8TIK AURRERA
BEHERAPENAK!

Ramon Irizar, 2
Tel. 943 08 81 84

www.candeluka.com
f Candeluka



Zerrautsa pellet bihurtuta

» Produkzio lerro berria jarri du martxan LANAK, eguneroko jardunean sortutako zerrautsarekin pelleta egiteko

Eguneroko jardunean sortzen duen zerrautsarekin pelleta egiteko produkzio linea berria jarri du abian LANAK kooperatibak. Egurraren transformazioan lan egiten duen enpresa izanik, zerrauts asko (240 tona astean) sortzen da bertan, eta nola edo hala irteera eman behar dio egur-hauts horri, produkzioa gelditu beharrik ez izateko.

Orain arte LANAK enpresa askori saldu izan die zerrautsa, erabilera ezberdinetarako (tablero aglomeratuak egiteko, animalien azpittarako, txanpiñoiak hazteko...) baina, jakina, horretarako astean zerrautsez betetako hamabost bat kamioi irten behar ziren lantegitik, eta horrek, kezka eragiten zuen enpresan, garraioak huts eginez gero, produkzio guztia gelditzea arriskua zegoelako.

Beraz, ikusita Europan, eta baita gure inguruan ere, gero eta ohikoagoa dela pelleta erabiltzea erregai gisa, LANAK produkzio linea berria martxan jartzea erabaki du. Aspaldian egin nahi zuten proiektu bat zen, baina krisiaren ondorioz atzeratuz joan da.

Beraz, aurrerantzean enpresan bertan emango diote irteera



zerrautsari. Gainera, pelletak zerrautsak baino bolumen txikiagoa daukanez, kamioien trafikoa ere gutxitu dute heren bat, eta hori ere urrats bat da iraunkortasunaren bidean.

KALITATEZKO PELETA

Lantegian sortutako zerrauts



> Pelleta biltzeko eraiki duten tobera handia ezkerrean. Goian, peleta 15 kiloko zakutan paketatuta

Peletaren sektorean dagoen kalitate ziurtagiri gorena lortu du LANAK ekoizten duen erregaiak

guztia tobera handi batean biltzen da, aspirazio bidez, eta handik beste makina batera bideratzen dute, prentsatu eta pelleta sortzeko, eta hotzitu ondoren paketatuta egiten dute 15 kiloko zakutan, goiko argazkian ikusten den eran.

Azpmarratzekoa da, gainera,

LANAk ekoiztutako pelletak DIN PLUS eta EN PLUS kalitate ziurtagiriak dituela, pelletaren merkatuan dagoen zertifikaziorik onena, hain zuzen. LANAk erabiltzen duen lehengaiak, egurrak, hezetasun maila txikia du, eta, ondorioz, zerrauts sikua sortzen du, eta horri prentsatu egokia eginda, bero-ahalmen handiko pelleta ekoiztea lortzen du.

Danera, 1.6 milioi euroko inbertsioa egin du LANAk produkzio lerro berria martxan jartzeko, eta hiru lanpostu berri sortu ditu. Kooperatibaren negozio bolumen osoa ikusita, peletaren produkzioak oso leku txikia hartzen du, noski, baina, estretegiak inportantea da, goian aipatutako arrazoiengatik.

INBERTSIO GEHIAGO


Gainerakoan, LANA kooperatiba sasoi betean dagoela esan daiteke. Krisialdiko urte latzak gainditu ostean, hiru errelebotan dihardute berriz ere, bai Oñatiko lantegian eta baita Txekiakoan ere, eta inbertsio berriak egingo dituzte, hazten jarraitzeko asmoz.

2007ko krisiak gogor erasan zion LANARI. Garai hartan 120 langile ziren Oñatin, eta urte hartan inauguratu zuen planta berria Txekian, 14 milioiko inbertsioa eginda. Baina egun batetik bestera, salmentak %80 jeitsi ziren, bereziki Espainian eta Portugalen, eta Oñatiko lantaldea 120tik 35era jeitsi zen bost urtetan. Zorionez, ekonomikoki ondo zegoen enpresa, eta, kostata, aurre egin ahal izan zion egoera zailari.

Europa mailan apalagoa izan zen krisiaren eragina, eta 2011. urterako Txekiako lantegia emaitza onak ematen hasi zen, eta Oñatin ere ondo dabilta 2013az geroztik. Gaur egun 120 langile ditu Txekiako filialak, eta 80 Oñatiko plantak, eta jende beharrean omen daude (FP-2 tituludunak) tailerrera.



Enkofraturako hiru kapadun tableroak eta eraikuntzarako habeak egiten ditu LANAk. Europako bigarren fabrikatzailea da egun.



Duela hamar urte Txekian egindako apustuak bere fruitua eman du, lehengaia (egurra) errazago eskuratzear gain, merkatu berrietara jauzi egiteko aukera eman diolako LANARI. Gaur egun, Europa mailan bigarren fabrikatzailea da bere sektorean, eta mundu osora saltzen du; Oñatiko lantegitik batez ere Espainia, Portugal, Frantzia eta, tarteka, Magreb-era saltzen da, eta Txekiatik mundu zabalera (Europa, Ipar eta Hego Amerika, Asia...).

Oñatiko lantegian enkofra-

**Txekiako lantegian
4 milioi inbertitu
ditu LANAk, habeen
fabrikazioa
automatizatu eta
produkzio
ahalmena
handitzeko
helburuarekin**

turako hiru kapadun tableroak egiten ditu LANAk, eta Txekiakoan, tableroez gain, egurrezko habeak ere egiten dituzte eraikuntzarako. Hain zuzen, bukatu berri den urtean 4 milioiko inbertsioa egin du LANAk Txekiako lantegian, habeen fabrikazioa automatizatu eta produkzioa handitzeko helburuarekin.

Eta Oñatiko lantegian ere, makineria berrituz produkzioa handitzeko aukerak aztertzen ari da LANA.

'GERRAK BILBOKO PORTUAN HASTEN DIRA'

HOTZ-OÑATI hitzaldia antolatu du 'Gasteizkoak' kolektibo ntimilitarista eta Kataluniako 'Solidarios sin fronteras-Yemen'-ekin batera

URTARRILAK 19, KULTUR ETXEAN, 18:30



Hotz Oñati lanean dabil interes geo-politiko eta estrategikoei eragindako migrazio fluxuetan pertsona guztientzat pasabide seguruak bermatzeko eta Harrera Herri izateko. Abenduan, giza eskubideak gure etxetik bermatzearen arduraz, arrazakeriaren diskriminazio soziala identifikatzearen beharraz, ezezagunak sorrarazten digun beldurra alboratzeaz eta duintasunez tratatzearen erantzukizunaz jardun ginen. Urtarrilean, ildo beretik jarraituz, begirada gurean jarriaz, euskal jendarteari dagozkion inplikazio zitalak azalarazten eta desobedientzia zibilaren funtzio politikoaren beharraz arituko gara.

Batzokian egindako pintadak salatu ditu EAJk

Abenduaren 24tik 25erako gauean ezezagunek batzokiko horman egindako pintadak gaitzetsi ditu EAJk. 'Presoak etxeratzeko garaia da' eta 'PNV atzerrira' zioten pintadek. Gorrotoa eta ezinikusia erakusten duten jarduteko modu anakroniko horiek alde batera utzta, gure herria normalizatzeko konfiantza giroa sortu eta batera lan egiteko deia luzatu du EAJk.

18.777.975 EURO

UDALAREN AURREKONTUA 2018RAKO

» EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz onartu dira aurrekontuak

18,7 milioi euroko aurrekontua izango du udalak hasi berri dugun urtean, iaz baino 391 mila euro gehiago (+%2,13). Azaroaren 30eko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz.

Aurrekontu orekatua da, diru-sarrerak eta gastuak parean dituen. Azpimarratzekoa da, sarrera eta gastu arrunten (+ amortizazioa) arteko aldea positiboa dela (+1.008.632€).

Sarrerei dagokienez, zerga ordenantzaren igoera (+%1,5) eta Foru Funtsaren igoera (+298mila) dira aldaketa nagusiak, iazko aurrekontuekiko. Gastuen atalean berriz, inbertsioetara zuzendutako diru kopuruan (+288 mila) dago alde nagusia.

Inbertsioetara 3,7 milioi bideratuko dira guztira, iaz baino %8,3 gehiago. (Ondoko orrietan azaltzen dira inbertsio nagusiak). Hauei aurre egin eta udal aurrekontua orekatzeko, 2,6 milioi euroko mailegu berria dago aurreikusita. Dena den, 2017ko likidazioa egin ondoren jakingo da mailegua beharrezkoa den ala ez, eta zenbatekoa.

DIRU SARRERAK KAPITULUKA

I.-Zuzeneko zergak	3.870.945€
(Kontribuzioa, ibilagiluak, gainbalioa...)	
II.-Beste zergak (obrak, jarduera ekono...)	150.000€
III.-Tasak eta beste sarrera batzuk	2.713.656€
(Zaborra, kiroldegia, Eguneako Zentroa, Etxez etxekoa...)	
IV.-Transferentzia arruntak	8.212.187€
(Foru Funtsa, gizarte zerbitzuetarako laguntzak...)	
V.-Ondare sarrerak (Oñargi)	867.564€
VII.-Kapital transferentziak	240.000€
(Hirigintza kuotak (%10), diru laguntzak inbertsioetarako...)	
VIII.-Finantza aktiboak	28.000€
(Kapital itzulketak, interesak...)	
IX.-Finantza pasiboak (mailegua)	2.695.615€

GASTUAK KAPITULUKA

I.-Pertsonal gastuak (soldatak)	5.424.192€
II.-Ondasun arruntak eta zerbitzuak	5.393.954€
(Konponketak, argindarra, garbiketak, bulego materiala, etxez etxekoa kontratua, eguneako zentroa, lorazantza...)	
III.-Finantza gastuak (maileguen interesak)	65.574€
IV.-Transferentzia arruntak	3.587.006€
(Aloña Mendi, Musika Eskola, kultur taldeak, 3. mundua...)	
VI.-Inbertsio errealak	3.736.827€
VII.-Kapital transferentziak	207.420€
(Mankomunitateari diru laguntzak inbertsioetarako...)	
VIII.-Finantza aktiboak	28.000€
(Kapital zabalkuntza Turismo eta Garapen Ajentzian)	
IX.-Finantza pasiboak (amortizazioa)	329.440€

AURREKONTUAK DEPARTAMENTUKA

➔ KOMUNIKAZIOA ETA PARTE HARTZEA	516.611€
➔ GIZARTE ZERBITZUAK	1.781.669€
➔ KIROLA	1.460.579€
➔ KULTURA	1.182.488€
➔ BARNE ANTOLAKETA	6.532.977€
➔ SOZIOEKONOMIA	551.239€
➔ LURRALDE ANTOLAKETA	5.416.592€
➔ AISIALDI HEZITZAILEA	1.335.821€

ZORPETZE MAILA

Udalaren zor bizia 2017ko urte amaieran 0,9 milioi eurokoa da (%4,19), azken hamarkadeetako txikiena, eta Gipuzkoako 10.000-20.000 biztanleko udalen batz bestekoaren (%13,7) eta Gipuzkoako batz bestekoaren (28,60) azpitik.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



“ MIKEL BIAIN / ALKATEA (EH BILDU)

Inflexio puntu bat markatzen dute aurtengo aurrekontuek. Inbertsio plan inportante baten abiapuntua dira.

Inflexio puntu bat markatu-ko duten aurrekontuak dira. Hala kalifikatu zituen Mikel Biain alkateak 2018ko udal aurrekontuak. “Ahalegin berezia egin dugu azken urteotan udalaren egoera ekonomiko-finantzieroa hobetzeko, eta horrek aukera emango digu hurrengo urteetan Oñatirentzat erreferentziazkoak izango diren inbertsioei ekiteko” adierazi zuen Biainek, kiroldegia eraberritzeko eta Olaiturriko gunea estaltzeko proiektuei erreferentzia eginez.

2018ko udal aurrekontuek milioi bat euroko aurrezki arrunta dutela azpimarratu zuen alkateak, eta udalaren zorpetze maila (0,9 milioi) minimo historikoetan dagoela. “Krisi garaitik gatozen arren, udalaren egoera ekonomikoa osasuntsua da, eta horrek aukera emango digu urteanitzeko inbertsio plan bati ekiteko, herriarentzat beharrezkoak diren azpiegiturak berritu eta eraiki ahal izateko.

ESKERRAK HERRITARREI

Aurrekontuetan jasotako egitasmo nagusiak azaldu aurretik, alkateak eskerrak eman zizkien beraien proposamenak egin dituzten herritarrei. “Ehundik gora ekarpen jaso ditugu herriko guneez berdinetan jarritako buzoietan, eta oso kontuan izango ditugu denak, agintaldiko planarekin eta udal langileen proposamenekin batera, aurrekontu proiektua lantzerakoan”.

2018ko INBERTSIO NAGUSIAK

Kiroldegia berritzeko exekuzio proiektua
300.000 €



Kiroldegia berritzeko proiektu zehatza landuko da aurtengo. Udalaren asmoa da guneez heze osoa berritzea, igerilekuan bi edo hiru kale gehituz, besteak beste. Urtea amaitu baino lehen lanak esleitu, eta hurrengo urtean obrak hastea da udalaren asmoa.

San Lorentzo (240.000€) eta Zubillaga (240.000€) eraberritzeko fase berriak



San Lorentzoko urbanizazioa berritu eta irisgarritasun baldintzetara egokitzeko 9. faseko lanak egingo dira 15-18 eta 25-28 etxe-blokeen inguruan. Bestalde, Zubillaga auzoa berritzeko 3. faseko lanak egingo dira, auzoaren erdigunean.

Ostatua Araotzen
200.000 €

Araotzen, neskaten eskola izandako eraikinean ostatu bat egokitzeko 200 mila euro bideratuko ditu udalak, baldin eta Jaurlaritzak ere babesten badu proiektua.



Jolasgunea berria San Martin auzunean
100.000 €



San Martin auzoko 18 eta 20 zenbakien artean hutsik dagoen orubean jolas-gunea egokituko da elementu naturalak erabiliz.

Jolasgunea berria Kasablankan
100.000 €



Kasablankan gaur egun dagoen jolasgunea osatzeko, edo beste lekuren batean berria egiteko 100 mila euro bideratuko dira.

Errekaldeko sotoa berritu
400.000 € (*)



Errekalde eskolako sotoak dituen hezetasun arazoak konpondu eta Urgain eskola publikoarentzat erabilgarri uzteko lanak egingo dira. Udalak 400 mila euro aurreratuko ditu, baina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak kostu osoaren %60 bere gain hartzeko konpromisoa du.

(Hurrengo orrira)

Hutsik dauden etxe zaharrak berritu eta alokairu soziala sustatzeko programa

100.000 €

Laguntza-programa piloto bat jarriko du abian udalak, bi helbururekin: hutsik dauden etxebizitza zaharrak eraberritzea, eta alokairu soziala sustatzea.



Hala, Udalak aurreratu egingo du obrak egiteko dirua, eta, ondoren, udalak eskumena izango du etxebizitza horiek alokairu sozialean eskaintzeko, obren inbertsioa berreskuratu bitartean. Gainera, inkesta bat egingo du etxe hutsen jabeen artean, hauek merkaturatzeko dituzten oztopoak eta erresistentziak hobeto ezagutzeko.

Natur Eskola eraberritu

185.000 €



Natur Eskolako eraikina eraberritzeko lehen faseko lanak egingo dira.

Eltziako egokitze lanak amaitu

100.000 €



Eltzia eraikineko egokitze lanak amaituko dira (teilatua, patioa eta fatxada). Horrez gain, berrikuntza moduan, dirulaguntza

lerro bat irekiko du udalak, Eltzekideek eurek kudeatzeko.

Argiteria publikoa berritu

90.000 €



Herriko argiteria publikoa berritzeko lan ezberdinak egingo dira. Besteak beste, Bidaurretatik Olakuarako tartean.

Olaiturri estaltzeko proiektua

50.000 €



Olaiturriko gunea estali eta erabilera anitzeko (aisialdia, kirolak, kontzertuak, ikuskizunak, bazkariak...) espazio bat sortzeko exekuzio proiektua idatziko da aurtén. Azpian garaje-plazak eraikitzeak aukera ere aztertuko da, baina baldin eta inguruko bizilagunek plaza horien bi herenak, gutxienez, erosteko edo alokairuan hartzeko interesa erakusten badute.

Maiatzaren 1eko espaloia zabaldu

20.000 €

Maiatzaren 1a kalean, Sabadell bankuaren aldeko espaloia estua berritu eta zabaltzeko lanak egingo dira.



2018rako beste egitasmo batzuk

- Etxaluze parkea berrituko da 400 mila (iaztik dator proiektua).
- Auzotasuna programa (100 mila) mantenduko da.
- Udal brigadarentzako 'retro' exkabadora erosiko da (72 mila).
- Larrialdi sozialetarako diru atala %8 igoko da, eta eskuhartze sozialerako diru-lerroa bikoiztu egingo da (62 mila).
- Errekaldeko etxebizitza bat behar sozialetara bideratuko da.
- HAPO (Hiri Antolamendu Plan Orokorra) garatuko da (80 mila).
- Zubillagako auzotarrendako aparkalekuak sortzeko aukera aztertuko da Olaburun.
- Ekintzailetasuna eta enpresa berriak sustatu eta formazio ikastaroetarako (50 mila).
- Merkataritza sustatu (40 mila).
- Santa Ana antzokiko berritze lanetarako (40 mila).
- Sarreraren aurre-salmentarako sistema (on line eta totema) abian jarriko da.
- Parrokiako koruarekin hitzarmena sinatuko da eta musika bandaren gastuei aurre egiteko igoera bat adostuko da.
- Bidegorrian komun zerbitzuak egokitzeko (10 mila).
- Euskara sustatzeko plan berria.
- Emakumeen Kontseilua eratu-ko da, berdintasuneko politike- tan sakontzeko.
- Indarkeriaren biktimentzako arre- ta zerbitzuen koordinazio protokoloa egingo da.
- Arazerixan ginkana berresku- ratuko da kultur ondarearen trasnmisioa lantzeko.

▪...

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz

inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu".



“ LOURDES IDOAGA / EAJ-PNV

Urtero 4 milioi euroko inbertsioak aurkeztu ditu EH Bilduk, baina, gero, %60 bakarrik gauzatzen dira, eta ez da serioa

EAJ-PNVren udal taldeak kontrako botoa eman zien EH Bilduk aurkeztutako aurrekontuei, bi arrazoi nagusitan oinarrituta, Lourdes Idoaga bozeramaleak azaldu zuen moduan. “Gure ardura nagusia gobernuaren gestioa kontrolatzea bada ere, propositiboak izaten saiatzen gara, eta horren erakusle da 40 proposamen aurkeztu ditugula 2018ko aurrekontuei begira. Baina horietatik zazpi bakarrik onartu ditu gobernu taldeak. Gehiago absolutuaz baliatuta, EH Bilduk gutxietsi egin ditu beste behin guk ordezkatzeko ditugun 2.475 boto-emaileak, eta gure bitartez beraien ahotsa udal txera eraman nahi duten herritar guztiena”.

Bestalde, EH Bilduren gestio ekonomiko txarra eta planifikazio falta kiritikatu zuten jeltzaleek. “Urtero 4 milioi euroko inbertsioak aurkeztu zituzte, baina, gero, %60 inguru bakarrik gauzatzen dira, eta hori ez da serioa” adierazi zuen Idoagak.

“Oñatikoa bezalako udal batek, gehienez, 2 edo 2,5 milioi euroko inbertsioei aurre egiteko gaitasuna du urtean” gaineratu zuen EAJren bozeramaleak, eta bere kezka adierazi zuen udal ekonomiaren inguruan, inbertsio kopuruak goraka doazela ikusita. “Aurrekontu hauek ez dute egonkortasun printzipioa betetzen, eta beharrezkoa ikusten dugu plan finantzieroa egitea”.

EAJ-PNVren UDAL TALDEAREN PROPOSAMENAK

Herritarrengandik jasotako 26 proopsamen eta EAJren programan jasotako beste 14 egitasmo aurkeztu zituzten jeltzaleek 2018ko aurrekontuei begira. Hona hemen horietako batzuk.

ONGIZATEA, SEGURTASUNA ETA BIZI KALITATEA HOBETzea

Bizikleta eta patineten zirkulaziorako Ordenantza egitea eta indarrean jartzea.

Olakua-Olapoto inguruko urbanizazioa berritzeko plana idatzi eta lanak hasia.

Tabernen ordenantza egin eta indarrean jartzea. Eta larunbat eta jai-bezperetan udaltzain zerbitzuak gaueko txanda ere egitea, segurtasunari begira, batez ere.

Jolas parke bat (Bidebarrieta) estaltzea. Parrokiko irteera eta kanposantuko kapera aurea argiztatzea, eta Martzelino Zelaia kalean igogailuetarako bidearen irisgarritasuna hobetzea.

Landa auzotarako argiteria plan orokorra.

Adinekoen zahartze aktiboa eta autonomia sustatzen duen ‘Euskadi Lagunkoia’ programa Oñatin aplikatzea eta Espereintziaren Eskola abian jartzea.

Zabor bilketarako 5. edukiontzia jartzea.

KIROLA ETA OSASUNA

Kiroldegiko igerilekuan 2-3 kale gehitzeko proiektuari lehentasuna ematea. Horrez gain, kanpoko igerilekudun aisialdi gune bat prestatzeko proiektua lantzea.

Atletismorako pista egokitzea Urrutxun, eta San Martineko hariztian korrika egiteko senda bat egokitzea.

Kiroldegian pertsona nagusiek kirola egiteko makina egokituak jartzea, eta adin guztietarako kirol programak sustatzea.

SOZIOEKONOMIA

Langabetuak lan berrietan trebatzeko dinamika antolatzea eta enpresa ekimenak saritzea co-work gunearen bidez.

Merkatariek berrikuntza teknologikoak (eCommerce, APPa...) inplementatzeko

laguntzak ematea, eta belaunaldi arteko erreleboa bideratzeko laguntza-programa merkatar, enpresa txiki eta autonomoentzat, eta hutsik dauden lokalak alokatu edo erosi ahal izateko laguntzak ematea.

Ekintzaile, autonomo eta lehen sektoreko profesionalen prozedura administratiboak arintzeko ‘Lehiatila Bakarra’ udal zerbitzua abian jartzea.

Turismo Plana egitea, merkataritzan eta ostalaritzan duen eragina sustatzeko.

Landa-auzoetako mugarrak definitu eta digitalizatzeko lana faseka garatzea, eta herriko biodibertsitatearen mesedetan, mendi eta baso pisten inbentarioa egin eta hauen inguruko kudeaketa plana lantzea.

HERRI BIZIA (PARTE HARTZEA, GAZTERIA, BERDINTASUNA, KULTURA, EUSKARA)

Herriko kultur guneen inbentarioa egitea, ahalguneak argitzeko, eta Kultura Sariak sortzea, kultur eragileen lana aitortzeko. Musika Bandaren hitzarmena berrikustea eta parrokiako koruarekin sinatzea.

Jatorri anitzeko haurrentzako euskarazko errefortzu-eskolen programara baliabide gehiago bideratzea, eta hauen eskolaratzea diruz laguntzea.

App-a sortzea Oñatiko hiztegia mugikor bidez kontsultatu ahal izateko.

Herriko puntu ilunak identifikatu eta argitzea (Bidaurreta-Olakua-Olapoto, San Lorentzo, Kasablanka, anbulatorioa...).

Herriko langile, sindikatu eta enprekin batera kontziliazio erantzukidea sustatzeko plana egitea.

Emakumeen Kontseilua martxan jartzea.

Parte-hartze ordenantza bat egitea, herritarrak herrigintzan inplikatzeko.

Gogora, Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen institutuak proposatutako proiektuetan parte hartzea.

Gazte Plana egitea, gazteekin batera, beraien beharrak asetzeko. Eta 12-18 urteko gazteentzako udaleku irekiak eta 14-20 urteko gazteentzako ikastaroak antolatzea.

Energetikoki eraginkorrak diren etxebizitzaren proiektu bat garatzeko hitzarmena sinatu du Udalak MCC, LKS eta MUREkin

» Zubillagako maixuen etxebizitza berrituko dute

Europako Komisioak finantziatzen duen Rennovates proiektuaren barruan, udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu du Mondragon Korporazioa, LKS eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoarekin. Proiektuaren helburu orokorra da, sistema berritzaileak, eraginkorrak eta ekonomikoak garatzea, etxebizitza bat eraberritzen denean jasagarritasun energetikoaren estandarrak bete ditzan. Eta hori praktikara eramateko, Zubillagako maixuen etxebizitza izan zena berrituko dute. Alde batetik, fatxadari isolatzaile termikoa jarriko diote eta, bestalde, modulo energetiko bat jarriko dute, energia sortu eta kudeatuko duena (ur beroa, berogailua...). Proiektuak 120.000 euroko aurrekontua du. Udalak 50.000€ jarriko ditu eta eragile pribatuak 70.000€.



Enpresa txikiek langabetuak kontratatatzeko diru laguntza deialdia egin du udalak

Herriko mikroenpresa eta enpresa txikiei langabetuen kontratazioa errazteko diru laguntza deialdia egin du udaleko Sozioekonomia sailak, Lanbiderekin elkarlanean.

Egoitza soziala eta jardun eremua Oñatin duten enpresa txikiek (50 langile baino gutxiago) eskuratu ahal izango dute laguntza. Kontratuak 2017ko ekainaren 1a eta 2018ko ekainaren 30a artean hasi behar dira, eta, gutxienez, 6 hilabete iraupena izan behar dute.

Lanaldi osokoak edo partzialekoak izan daitezke kontratuak, baina lanaldiaren %50ekoak izan behar dute, gutxienez. Enplegu sorrera garbia ekarri behar dute enpresara. Kontratatuak diren pertsonak Lanbiden izena emanda egon behar dute.

LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Lanaldi osoko eta sei hilabete edo luzeagoko lan-kontratu bakoitzeko 1.000€ko laguntza emango da (1.300€ emakumezkoa bada). Denbora partzialeko kontratuen kasuan proportzionala izango da diru laguntza. Gainera, diru laguntza %30 gehituko da, kontratatzen den pertsona DSB/RGI hartzailea bada, edo lehen enplegua lortzen duen 35 urtetik beherakoa, edo 55 urtetik gorakoa, edo epe luzeko (+12 hilabete) langabetua bada.

Enpresa bakoitzak gehienez 3.500€ jaso ahal izango du deialdi bakoitzeko. Laguntza eskaerak udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztu beharko dira idatziz.

San Lorentzoko urbanizazioa berritzeko 9. faseko lanak esleitzeko prozesua abian

San Lorentzoko 15, 16, 17, 18 eta 25, 26, 27 eta 28 etxe-blokeen inguruko urbanizazioa berrituko duten 9. faseko lanak esleitzeko prozesua abian jarri du udalak, 241.174 euroko aurrekontuarekin. Urtarrilaren 15era arteko epea dute enpresek eskaintzak aurkezteko. Martxoan alderi hasiko dira lanak.

San Martin auzuneko jolas parke berria egiteko proiektua enkargatu du udalak

Olaran Paisaia proiektuaren barruan, San Martin etxaldeko 18 eta 20 zenbakien artean hutsik dagoen orubean gazteei zuzendutako 'Baratzako Pikua' izeneko jolas gunen alternatiboa egitea aurreikusten da, elementu interaktibo ezberdinekin. Horretarako, 100 mila euroko diru atala dauka udalak aurrekontuetan, eta orain parkearen proiektua idaztea enkargatu dio Iñigo Segurola (*Lur Paisajistik S.L.*) adituari.

Hiru markesina jarriko ditu udalak Herribusaren ibilbidean

Herri barruko garraio zerbitzuaren geroak jartzeko hiru markesina erosi ditu udalak 8.622 eurotan. *Conviviale* markako markesinak dira, 2 metroko luzeera eta 1,5 metroko zabalera dutenak, metrakilatza estalkiarekin eta ordutegia jartzeko bitrinarekin. Oraingoz 3 jarriko dira, Ugarkalde, Errekaldeko eskola eta Kasablankako geltokietan.

'Oñati Grant' beka emango du udalak, Lege Soziologia Institutoarekin lankidetzan

4.000 euroko dotazioa duen beka emango du udalak, Oñatiko herriari ekarpena egiten dioten gizarte zientzietako edo zuzenbideko ikerketak proiektuak sustatzeko. Interesatuak urtarilaren 31rarteko epea dute eskaerak aurkezteko. Udalaren webgunean dago ikusgai deialdia.



www.urgain.eus

ATE IREKIAK

Errekalden: urtarrilak 27, larunbata,
arratsaldeko 17:00 etatik aurrera.

Zuazolan: Urtarrilak 30, asteartea,
arratsaldeko 18:00 etatik aurrera.



MATRIKULA

TXIKI-TXOKO: maiatzak 2tik 12ra

ERREKALDE eta ZUAZOLAN: urtarrilak 29tik otsailak 9ra.

Amalur belar dendarentzat erakusliho onenaren saria



Saridun guztiak, udal ordezkariekin

Amalur belar dendak irabazi du Gabonetako X. Erakusleiho Lehiaketako sari nagusia (1.500 €), orain dela bi urte lortutako garaipena errepikatuz. Epaimahaiko hiru kideek 1etik 5era puntuatu dute konposizioa, kolorea, argia eta originaltasuna, eta garbi egon omen da lehen saria. Bigarren saria (1.000€), hau ere garbi, antolatzaileen esanetan, *Iramira* zapata dendak jaso du. Gainerako sarietarako estuago egon omen da puntuazioa. *Trikitx* (500€), *Urtxin* (300€) eta *Andrea Azkoaga* (200€) izan dira sarituak. Bestalde, herritarren saria (500€) *Kimu* lora dendarentzat izan da, boto guztien (1.071) %15 jasota. Azkenik, saritu gabeko komertzioen artean zozkatutako sari berezia (500€) *Kuttunentzat* izan da.



BiziPoz-2018

55 urtetik gorako pertsonen formazio aktiboa eta parte hartze soziala sustatzen duen BiziPoz programa abian jarriko da aurten ere

Udalak babesten duen **BiziPoz** programaren 5. edizioa jarriko da martxan otsailean. Alde batetik, tailer dinamiko eta praktikoak egingo dira, eta, bestetik, parte hartzaileek proiektu sozialak garatuko dituzte taldeka.

TEKNOLOGIA BERRIAK ETA EKONOMIA

Aurtengo programan bi gai nagusi landuko dira: **teknologia berriak** (whatsapa, erosketak online, banku elektronikoa, GPSa...) eta **ekonomia** (nazioarteko ekonomia, pentsioak, herentziak...).

Programarekin hasi aurretik, bakarkako elkarrizketak egingo dira izena ematen duten pertsonekin, bakoitzaren interesak eta motibazioak ezagutzeko.

Tailerrak eta proiektuen tutoretza orduak Bidebarrieta kaleko Euskaldun Berria gelan (17:00-19:00) izango dira, honako egunetan otsailak 7, 14, 21 eta 28, martxoak 7 eta 14, apirilak 11 eta 18. Informazio gehiago eta izena ematea: 638 516 973 (Eider).



Ezkabako gartzelaren historia beltzari buruzko erakusketa

Txinparta Memoria Sareak eta Aranzadi Zientzia elkarteak antolatuta, udalaren laguntzarekin, Iruñeako Ezkaba mendiko San Cristobal gotorlekuan egon zen espetxe frankistaren inguruko erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean, urtarrilaren 23tik otsailaren 4ra. Hilaren 23an aurkezpen ekitaldi irekia egingo da 18:30etan.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINDAK • NEURRIIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labeen saria



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Urtarrilaren 13an Bilbora joateko deia egin du SAREk

Zuzenbide justuaren bidezko aplikazio esijitu, eta bake bidean urrats berriak emateko helburuarekin, urtarrilaren 13an 'Prest gaude' lelopean Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu dio Sarek euskal gizarteari. Oñatiko Sarek autobusa antolatuko du. Animatu!



Abenduaren 9an Pariseko manifestazioan egon zen oñatiar taldea



Odol emaile BIKAINAK

Deba Arroko odol emaileen elkarteak hamalau oñatiar saritu ditu aurten. Horietatik bederatzik zilarrezko domina jaso dute, odola 25 aldiz eman dutelako, beste hiruk urrezkoa, 50 aldiz emateagatik, eta azken biek **EMAILE BIKAINA**ren diploma jaso dute, 75 emanalditara iritsi direlako. Beraiekin izan gara.



MANUEL REGUEIRO 1984an hasi zen odola ematen. Ez du gogoratzen, zehazki, zergatik. "Garai hartan larunbat arratsaldetan ematen zen odola, San Martin egoitzaren ondoan zegoen anbulatorioan. Gogoan dut, kuadrillako hiru lagunek erabaki genduela odola ematen hastea. Eta gaur arte, hogeita hamairu urte".

Emaile Bikainaren diploma jasotzea polita izan dela aitortu digu. "Bai, une berezia izan zen. Beharra daukan jendeari zelako mesedea egiten zaion azaldu zuten, eta, benetan, hunkigarria izan zen. Are motibatuago etorri nintzen".

Nahiko konstantea da Manu. Urtean hiru edo lau aldiz joaten da odola ematera, eta berdin jarraitzeko asmoa du, ahal badu, 70 urte bete arte. "Bai, jarraitu egingo dut, oso beharrezkoa delako, eta edozeinek izan dezakeelako odol premia edozein momentutan". Bide batez animatu egiten du jendea, batez ere gazteak. "Gero eta jende gutxiago ikusten dut odola ematen, eta zerbait egin beharra dago. Aukera bat izan liteke, beharbada, lantegietara jotzea odol emaile berriak lortzera".

BENJAMIN VILLAR 22 urterekin hasi zen odola ematen, emazteak animatuta. Gero, denboralditxo batez, eman gabe egon zen, barizeetako ebakuntza egin ziotenean; baina, gainerakoan, urtean hirutan edo lautan eman izan du eta, dagoeneko, 82 emanalditara iritsi da. Gainera, Benjaminek '0 negatibo' taldeko odola duenez (emaile unibertsala), okasio berezietarako ere deitu izan diote odola ematera. "Behin, kotxe istripua izan zuen Madalenako emakume batendako odola ematera joan nintzen Donostiara, eta beste birritan Basurtura joanda nago, odola behar zuten bi lankiderentzat ematera" gogoratzen du.

Pozik jaso du Emaile Bikainaren diploma, helburua hori ez bada ere. "Gu ez gara joaten odola ematera diploma jasotzearen, baina ondo dago; eskertu egiten da norberarekin akordatzeari". Oraingoz odola ematen jarraitzeko asmoa du Benjaminek, "ondo eta osasuntsu nagoen artean bai". Baina, inportanteena, jende gaztea animatzea dela dio. "Odola ematea ez da batere zaila, ez da igarri ere egiten, eta gauza ona da denontzako. Norberandako be ondo etortzen da, odola berritzeko".

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Kontzejupetik

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Eroski, ez egin gasolindegirik jendea bizi den lekuan

Gaizka Telleria eta Jon Altube

Azaroaren erdi inguruan hasi zen Aguretzako histori hau. Portalekuek gora bizi garenok, Udaletxeak jakinarazi zigun notifikazio baten bitartez, Eroskik bertako aparkalekuan gasolindegirik bat irekitzeko baimena eskatu duela eta Arantzazuko Ama kaleko Komunitate eta lokal guztiei albiste hori ematera behartuta zegoela aurkako arrazoirik balego, aurkezteko aukera izan dezagun.

Eroski inguruan bizi garenok, haruntzatxoago edo honuntzatxoago izan, ez dugu begi onez ikusi gasolindegirik kontu hau eta berehala eskatu ditugu behebaruko bizilagunen bilerak.

Batzuk, sinistu ezinda diote, nola egin litekeen gasolindegirik bat etxe bizitzaren ondoan eta gainera, harrigarria bada ere, umeak eskola duten aurrekaldean. Beste batzuk adierazi dute Eroskiri garbi esan behar zaiola ez dugula nahi gasolindegirik gure osasunari kalte egingo zaiolako.

Zero emisio propaganda egin bainan gero emisio kutsagarriak airera jaurtitzen dituen aktibitatea jartzea ez dela leial jokatzea Eroskik berak eman nahi duen mezuarekin, salatzen dute beste batzuk.

Badira ere, autoen joanetorria asko ugartuko dela esaten dutenak eta ondorioz eskolako umeen segurtasuna arriskuan jartzen dela diotenak, eta gainera, ihes-hodietatik ateratzen diren gasak denon bizi kalitatea kaltetuta aterako dela zihur daudela gaineratzen dute.

Beste arrazoi batzuk ere eman ziren aipaturiko bileretan: sute arriskua, leherketa, zaratak eta azkenik informazio batekin aurkitu genuen Eroskiren kontraesanik nabarmenena.

2011ko Otsailaren 4an Eroski Consumer aldizkarian argitaratutako artikulua zioen: *La contaminación de las gasolineras se percibe desde los edificios...*

Gasolindegien kontaminazioa 100 metro bainan gutxiagoko distantziatik kokatuta dauden etxebizitzetatik nabaritzen da. Konbustibleen lurrinetatik datozen emisioak estazio hauen gertuko aireari eragiten dio. Ikusi: <https://www.google.es //Peligro de las gasolineras>

Eroskik egin nahi duen gasolindegirik etxe bizitza baten ondo ondoan gertuko litzateke eta beste etxe bizitza bat metro gutxi batzutarra. Eskola berriz, aurre aurrean. Beraz, 2011an, Eroskik berak kutxagarria eta osasunarentzat kaltegarria dela esaten bazuen, orain 2018an, arrazoi berberagaitik jendea bizi den lekuan gasolindegirik ez egiteko eskatzea, uste dugu arrazoizkoa dela.

Kontzejupetik: 25 urte

Amaia Erostarbe. EAjren zinegotzia

Kontzejupetik aldizkariak 25 urte bete ditu 2017an. Oñatiko udaleko Euskara Zerbitzuak sortu zuen 1988. urtean. Imanol Galdosek eta Marian Lizaralde gidatzen zuten zerbitzu hasi berria garai hartan.

Helburu zehatza izan zuen hasiera hartan: euskara normalizatzeko tresna izatea. Hala, euskara hizkuntza etxe guztietan egotea ziurtatu nahi zen: herriko etxe guztietaraino iritsi behar zen. Eus-

karaz irakurtzeko gaitasuna bermatzea ere jomugan eduki zuten orduko udalbatzak eta euskara teknikariak. Ohiturak legea ohi dakar!

Kontzejupetiken lehenengo aleak egitasmoaren berri eman zigun. Hizkuntza normalizazioaz ere jardun zuen, urte haietako *trending topic*-a udal euskaldunenetan. "Udaletxean euskaraz" artikulua ere bazetorren, Iñigo Arregik idatzita. Halaberharra ote! Ale horretan, atal hauek irakurri zitezkeen: udaleko gaiak eta artikulua, euskara normalizatzeko urrats berriak, kirolean eta merkataritzan euskara txertatzeko lanak, udal-euskaltegia, *Ba al dakizu?* lehiaketa... Hiruhilabetekaria zen, eta kaiera-itxura zeukan. Une horretan, aldizkaria egitea eta kaleztatzea izan zen garrantzitsuenak.

Hurrengo urratsean, hilabetekari bihurtu zen Kontzejupetik. Oraingo itxura hartu zuen, eta koloretan argitaratzen hasi zen. Urrats ausarta izan zen: kazetaritza-ikuspegia erantsi zitzaion hasierako xedeari (hizkuntzaren normalizazioa), aldizkari-moldean ikusi zuen argia, gaurko atalak gehitu zitzaizkion, eta; gainera, hainbat herritarren eta talderen partaidetzarekin hornitu zen. Oñati irratia ere orduantxe eratu zen, eta bidea ireki zen irratia eta aldizkaria elkarren osagarri izan zitezen. Bata, bat-batekoa, eta gaurkotasuneko gaiekin eta azken berrieekin; bestea, hilean behinekoa, eritimo geldiagoarekin eta gaiak sakonago landuta.

Aldizkariari berari eta hasierako izaerari eutsi zaio 1988tik, nolabait. Helburu nagusia, eta hainbat atal eta ezaugarri ordukoak dira; hizkuntza ere bai. Den-dena, hala ere, ez dator bat hasierako asmo xumearekin eta ausartarekin. Lehen hala, orain hola, gero ez jakin nola!

IKASTAROAK

2017/18

OÑATI

LANERAKO PRESTAKUNTZA

% 100 DIRUZ LAGUNDUTA
LANGILEENTZAT LEHENETSIK

IKASTAROA	KODEN	ORDUA	ALBEE IRLUSITAKO DATA
FABRIKAZIO ARLOA			
Mekanizazioa tornu/fresa makinan eta automatizazioa	UF0878 UF0881 UF0883 UF0880	260	Otsaila 2018
CNC programazioa	UF0879 UF0882	150	Apirila 2018
DISEINU ARLOA			
Ordenagailu bitartezko diseinua (CAD). Solid Edge.		80	Urtarrila 2018

LANGABEENTZAT LEHENETSIK

IKASTAROA	KODEN	ORDUA	ALBEE IRLUSITAKO DATA
Sistema mekanikoak muntatzeko, konpontzeko eta martxan jartzeko teknikak	MF1263_2	120	Urtarrila 2018



OHARRA: Ikastaroen hasiera datak partehartzaileen izen-ematearen arabera aldatu daitezke.

Izen-Ematea: IES R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA BHI
 LARRAÑA Lanbide Heziketa egoitzan
 San Lorenzo z/g
☎ 943 78 21 50
harrera@onati.net
www.onati.net

Epea zabalik!!!





- Arazerixan -

MILA ESKER URTE HONETAN GUREKIN EGOTEAGATIK!!!

Urte honetan ere mila bizpizen konpartitu ditugu haur eta gazteekin batera.

ESPERO DUGU DATORREN URTE BERRIA JOAN DENA BAINO ARE BEREZIAGOA IZATEA!!!

Hemen 2017ak utzi dizkigun momentu polit batzuk:



2018an ere gure zerbitzuetako ate guztiak zabalik izango ditugu zuentzat. ANIMATU ETA HURBILDU!!!

URTE BERRI ON!!

BELDURRAREN GIZARTEA

Zertarako balio dute hainbat kamera eta mugikorrek gizartea ez bada gai beldurrik gabe bizitzeko? Terrorismoaren aurkako borrokaren izenean, herri lauaren jagoletzarako kamera eta beste segurtasun-tresna ugari ezarri dira azken urteotan jende asko mugitzen den tokitan; bada, aeroportu, tren eta autobus estazio, hospitale baita eskoletan ere. Aldiz, gizartea, geroz eta izutuago bizi da berehalako atentatu terrorista bat jazoko den beldur edo, mundu-mailako beste gerraren batek eztanda egingo duen ikaraz.

Amaia Aranzeta



Segurtasuna, gaur egun, negozio bat besterik ez da, ilusio bat baizik, gizarteari lasai bizitzeko dioten bitartartean, zentzu bariko politika ankerrak atzetik sinatzen dituztela. Gaurko munduak, estereotipoz beteak, ez du Aldo Huxley-ren narratiba besterik islatzen; hartu pilula larrosa bat eta pozik biziko zara, dio.

Telebista kateek, egunkariak, politikoez sentsazionalismoz beteriko mezuez bonbardatzen gaituzte momentuoro beldurra, izua, gure begien aurretik ezabatzeko. Hala ere, beldurrak hor

jarraitzen du, denen bistan, denon kontzientzian. Errezeloz beterik bizi gara guztia ondo doala diotenen itzaletan. Baina, armak eskutan hartu eta nornahi tirokatzeko eskubidea dugunean, ezer galdetu aurretik su ematen diogunean, zuria bazara, kaukasikoa alegia, legeak gehiago babesten zaituenean... *welcome to America*, Ameriketako Estatu Batuek dakartzuten teoria eta praktika politiko guztiak onartzen ditugunean.


Aldiz, Ameriketako Estatu Batuek, segurtasunak bere inguruan bildu duen utopia besterik ez digu erakusten; eta, behin idatzi nuen bezala, utopia guztiak dira distopiak, amestu ezin diren bizi-puska hauskorak, gure, norbanakoaren bizi-puska, beldurraren transparentzia honetan atrapatua gelditzen denean.

TRENIAN ETORRITAKUAK

Beste hainbat tokitan bezala, zenbait oñatiar gure herritik kanpo bizi gara, gertuago edo urrunago, aspalditik edo duela gutxitik. Batzuk hiri handietan eta besteok herri txiki edo landa-gunetan. Distantzia medio edota gurasok falta direla eta, sarritan edo noizbehinka agertzen direnak.

Banakia Plentzian bizi gara, Bizkaiko kostaldeko herri txiki baten, oñatiarrentzat ez hain ezaguna dena. Tradizionalki merkantzia-ontzitegiko kapitainen herri bezala ezagutu ohi da, baina gaur egun bizitegi-gunea eta udatiarren tokia bihurtu da. Azken urtetan jende ugari joan

Luis Guridi



gara hara bizitzera hainbat tokietatik, oñatiarrak barne. Batzuk urte asko daramagu han bizitzen, kasu askotan norbereren jaioterrian baino gehiago, baina ez gaituzte inoiz plentziar kontsideratuko.

Plentziartzat bere burua hartzen dutenentzat, bakarrik izango dute kategoria hori bertako familia tradizionalak, merkantzia-ontziko kapitainak eta beste famili jakin batzuk osatu izan dituzten sagak. Kanpotik etorritakoak, baina familia horien norbaitekin ez-kondutakoak, eta luzaro bizi garen kanpotarrok, betik izango gara **"trenian"**

"etorritakuak". (Bilbo eta Plentzia arteko trenak, 1901ean egin zuen lehen bidaia eta 1995ean metroak ordezkatu zuen ibilbide berdina eginez itsasadarraren eskuin aldetik). Eta azkenik, udatiarrak, hemen etxea dutenak baina udan edota noizbehinka etortzen direnak.

Azken urte hauetan, badaude beste zenbait ere hemen bizi direnak, bizitza salbatu nahian edo bizimodu hobe baten bila, ez trenean, baizik autoz, hegazkinez, itsasontzietan edo pateran etorritakoak. Beste kategoria bat sortu beharko litzateke horientzat?. Nahiz eta "trenian etorritakuak" kontsideratu, egia esan guztiz onartuak izan gara Plentzian. Beste horien kasuan ere horrela izan beharko luke. Azken finean, denok gara nonbaitetik eta edonola etorritakoak.



• GALDARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

2017ko kirolari onenak



Saritutako guztiak udaleko kirol saileko ordezkariak

Abenduaren 22an egin zen bukatu berri den urtean nabarmendu diren herriko kirolariei aitortza egiteko ekitaldia. Mikel Ugarte triatletak jaso zuen kirolari onenaren saria, eta Fagor Industrial-Añoña Mendi senior mailako eskubaloit taldeak talde onenarena. Eta talde hori zuzentzen duen Aitor Aranbururentzat izan zen entrenatzaile onenaren saria. Txema Beitia golf jokalaria eta Unai Arregi eta Sergio Gil rally gidariek ere aipamen berezia jaso zuten. Eguneke sari bereziak pilota sailarentzat izan ziren. Esteban Ugartek ondo merezitako errekonozimendua jaso zuen, 40 urte luzez pilotaren alde egindako lan isilarengatik, eta aurtien 50 urte bete dituen pilota sailak ere aipamen berezia jaso zuen. Azkenik, herritarren saria Jon Altuberentzat izan zen, boto guztien (1.354) %32,27rekin. Nerea Diaz (%30,65) Ihanire Urteaga (%25,70) eta Xabi Lete (%1,71) ziren beste hiru hautagaiak.

Garcia eta Ramos Euskadiko kross txapeldunak



Jose Luis Garcia eta Marisol Ramos Aloña Mendiko korrikalariak abenduaren 23an Laudion jokatu zen Euskadiko kros txapelketa irabazi zuten, Master-60 eta Master 55 kategorietan, hurrenez hurren. Gizonezkoen senior mailan Sergio Garcia (15.) izan zen gure ordezkari onena. Bestalde, abenduaren 17an Ordizian jokatu zen krozean Eric Martin laugarren sailkatu zen

Cueva eta Erostarbe, Gipuzkoako txapeldunak ziklo krozean

Aloña Mendi-Arrikutz taldeko txirrindulariek lan bikaina egin zuten abenduaren 17an Urrutxu inguruetan jokaturako Gipuzkoako ziklo kros txapelketan. Unai Cueva azkarrena izan zen kadete mailan, eta Garazi Erostarbek ere txapeldunaren mailota jantzi zuen jubencil mailan.



Ileak ile-apaindegia da aurtien ere Alebin eta Infantil mailako korrikalarien babeslea

Ezin txapela jantzi Markel Gartziak

Promesa mailan dagoen txapelketarik garrantzitsuenetakoa den Bankoa-DV txapelketako finala jokatu zuen Markel Gartziak, Oscar Lerena errioxarrarekin bikotea osatuz, baina garaipena Agirremailloa-Olidenentzat izan zen 22-18.



Arlabanetik Araotzera, mendiz

Arlabanen abiatu eta Araotzen amaituko da Aloña Mendik antolatu duen urteko lehen mendi irteera. Arabako mendien lerroa jarraituz, Alabitta eta Degurixa gainetik eta Andarto ondotik igarota iritsiko dira Araotzera (15 km. eta 700m.-ko desnibela, zailtasun barik). Hilaren 21ean izango dira irteera (goizeko 8etan postetxe parean) eta 18a baino lehen eman behar da izena, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Prezioa: 10€.





Matrikulazioa

-  **Bisita gidatuak**
-  **Bilera informatiboa**
-  **Elkarrizketa pertsonalak**
-  **Matrikula epea**

HH 0-1 urte

Urte osoan zabalik

Bulego ordutegia:

Goizean 08:00-13:00

Arratsaldean 14:00-18:00

HH 2tik aurrera (HH-LH-DBH)

Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra

Bulego ordutegia:

Goizean 08:00-13:00

Arratsaldean 14:00-19:00



Informazioa eta izen ematea:
txantxikuikastola.eus • 943 78 12 04

Haurrentzako bertso-ipuina idatzi du Xabier Ugartek

Euskal preso eta iheslarien literatura, komikiak eta bestelako sormen lanak plazaratzen dituen *Ateramiñe* argitaletxeak Xabier Ugarte oñatiarraren ipuin bat aurkeztu zuen, beste lan batzuekin batera, Durangoko azokan.

Axelko eta Otsoko du izenburua ipuinak, eta bertsotan idatzita dago istorioa. Aloña inguruan bizi diren azeri eta otso bihurri biren arteko liskarrak eta tira-birak kontatzen ditu 30 orritan. Haurra zelarik, Angiozarreko soinujoleari entzundako istorioa da, Xabierrek azaltzen duenez.

Ipuina osatzen duten irudiak Zuerako (Zaragoza) espetxean dagoen Kepa Etxeberriak egin ditu. Pontevedrako *A Lama* espetxean ezgutu zuten elkar Xabierrek eta Kepak. Oñatiarra Topas-eko (Salamanca) espetxean dago egun.

Ateramiñeren webgunean (www.literaturakoadernoak.org) eska daiteke ipuina.



Xabier Ugarte



Kepa Etxebarria



Axelko eta bere lagunak
begi kot bel, zelatan
gure Otsoko kurrilduz gero...
guztiak antreintxiketan,
ulu maltzurra eta irria
otsora zanean hortzetan
bere muturra eguzko sartuz
besien otorduetan.

6



La música vasca por el Padre Francisco de Madina

Aurtengo Durangoko azokan aurkeztu diren berritasunen artean, Aita Madina (1907-1972) musikari oñatiarrari eskainitako *'La música vasca por el Padre Francisco Madina'* (Dúo Seraphin) liburua zegoen. EKIN argitaletxeak Buenos Airesen 1943an kaleratu zuen liburuaren berrargitalpena da. Liburu hartan Aita Madinak idatzi zituen testuak bakarrik hartu dira, eta Zubillagako musikagileak han-hemenka idatzitako beste bederatzi artikulurantsi zaizkio.

Gainera, Madinaren bizitza ere jaso da liburuan (Jose Antonio Azpiatzuk 2002an argitaratutako biografiaren laburpena) berak konpoastutako partitura eta grabatutako CDen zerrendarekin batera. Xabier Ugartek prestatu du argitalpena.

ETXiAN
Oñatiko inmobiliaria berria

Donostian etxea prosteko ere,
aukera onenen informazioa eta laguntza

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net


Etxebizitza edo
lokal bat saldu nahi
al duzu Oñatin?

ETXiAN

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Aritz eta Iker
Plazaolak, eta
Xabat Igartuak
egiten dute
Eztanda

'Eztanda'

Gazteek egindako irratsaioa gazteendako

Ostiralero Oñati Irratian (FM 107,4) 20:00etan eta 23:30etan

Gazteek egindako irratsaioa gazteei zuzendua. Horixe da, laburbilduz *Eztanda*, Oñati Irratian (FM 107,4) ostiralero 20:00etan eta 23:30etan entzun daitekeen irratsaio saltseroa.

Musika eta umorea ditu osagai nagusiak, baina ez bakarrik. *Kultura Plaza* izeneko tartea ere badute, umore ikutuarekin hau ere, baita lehiaketa bat ere (*Zer edo zer, dana aldrebes*), eta, tarteka, elkarriketa sakon eta interesgarriak ere egiten



Abenduaren 22an ordu eta erdiko saio berezia egin zuten Gaztelekutik

dituzte. Hala, Eztandakoen mikrofonoetatik pasa izan dira: Eñaut Elorrieta, Jon Andueza, Piter Ansorena, Potx eta Lotx pailazoak, Txipittu musika taldeko kideak... Eta tarteka kolaboratzaile-lagunen bisita ere izaten dute, saioari haize freskoa emateko.

MULTIMEDIA ZALEAK

Multimedia zaleak dira Aitz eta Iker, eta Oñati Irratiak antolatutako tailer batean parte hartu ostean, uztailean jarri ziren aurreneko mikrofonoen aurrean, ordulaurdeneko musika tartearekin. Baina gehiago nahi zuten, eta urriaz geroztik ordubeteko saioa egiten dute astero. Oso esperientzia ona izaten ari omen da.

Ondo pasatzea da beraien helburu nagusia eta, ahal den neurrian, entzuleei ere gozaztea Lagunek eta ingurukoek behintzat entzuten dute eta, oro har, *feed back* onak jaso dituzte. Beraz, pozik daude eta lanean jarraitzeko gogoz.

Abenduaren 22an ordu eta erdiko irratsaio berezia egin zuten Gaztelekuan, eta, besteak beste, irratsaioarako propio sortu duten *Salamandra* abestia estreinatu zuten zuzenean.

Ideiak eta ilusioa soberan dituzte, eta urte berrian ere antenaratzen jarraituko dute ostiralero. Egunean bertan irratsaioa entzun ezin dutenak <https://hearthis.at> webgunean dute aukera nahieran entzuteko. Eta *Instagram* kontua ere badute (@eztanda) jarraipena egin nahi izan ezker.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Aurpegi berria musika bandan

Jose de Azpiazu musika eskolak egiten duen formazio lanak bere fruituak ematen jarraitzen du. Hala, azaroaren 26an, bere lehen kontzertua eman zuen musika bandarekin Aimar Murua gazteak. Hemezortzi urte ditu Aimarrek eta perkusioko instrumento ezberdinak jotzen ditu. Musika eskolako konbo talde ezberdinetan ere ibili izan da. Familiatik datorkio musikazaleasuna Aimarri. Aitona zena, Bittor Olalde 'Kamiñero', 60 bat urtez aritu zen bandan, eta izeba Judith eta lehengusu Maider ere bandako kideak dira.

'Tenplarioen altxorra', Arantzazun gertatzen den misteriozko istorioa argitaratu du Iñaki Zubeldiak

Tenplarioen altxorra (Desclée), Arantzazuko Iritegi koban jazotzen den misteriozko istorioa argitaratu du Iñaki Zubeldiak (Ikaztegieta, 1945). Gazteei zuzendutako nobela laburra da (80 orrialde) arin eta gustora irakurtzeko modukoa.

Iritegiko koban, 500 kiloko harritzar baten azpian, gordeta dagoen tenplarioen altxor baten inguruko istorioa da. Hainbat oztupo gainditu beharko ditu protagonistak altxorra aurkitzeko inor konturatu barik. Eta zer egingo ote du gero altxorrarekin? Bi bukaera posible proposatzen ditu idazleak, eta atea zabalik uzten du irakurleak hirugarrena asma dezan. Ondo ezagutzen ditu Iñakik Arantzazu aldeko haitzuloak. Izan ere, bera izan zen Arrikruzeko lehoiaren hezurdura aurkitu zuenetako bat 1966an.



Ipuin kontaketa saioa 3-5 urtekoentzat

Ostegun Kontalariak ekimenaren barruan, 3-5 urteko haurrentzako istorioak ('Jateko moduko ipuinak') kontatuko ditu Maite Francok udal liburutegian urtarilaren 25ean. Hilaren 15etik aurrera banatuko dira gonbdapenak.



TERTULIXAK. Euskarazko irakule taldea urtarilaren 10ean bilduko da, eta gaztelerazkoa hilaren 31n *Pekineko kea* eta *Novela de ajedrez* liburuen inguruan.

Leintz-Gatzagako herritarren erretratuak ikusgai

'Gatza. Leintz-Gatzagako herritarren erretratuak' izenburua duen erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean, urtarilaren 8tik 21era (egunero 18:00-20:00).

Gatzagako herritarren errolda grafikoa osatzeko helburuarekin, Jose Felix Diaz de Tuestak egindako erretratuak dira. Mosaiko handi bat (204 gatzagarraren argazkiz osatua) eta formato handiko beste 38 erretrato ikusiko ditugu bertan. Gainera, proiektua osatzeko, 'Gatza' izeneko webgune bat aktibatuko da, informazio osagarriarekin.

AGURTZANE ileapaindegia

AGURTZANE ileapaindegia, **VI. urteurrena** dela eta, eskerrak eman nahi dizkie bezeroei erakutsitako konfidantzagatik. Eta bide batez, urte berri on bat opa dizue.

Urte Berri On!

Euskadi Etorbidea 8 • Tel.: 943 53 45 44

SEIGARRREN
URTEURRENA



ADI LAGUN! PROIEKTUA, ETORKIZUNEN GIZARTEA EREITEN

Artearen eta sormenaren bidez elkarbizitza langai duen ekimena jarri dugu abian ELKAR HEZIn.

Nola deskribatuko zenuke gaur egungo gizartea? Indibidualista, baliorik gabekoa, lehiakeriaz betea, materialista... Ziur hauetako bat baino gehiago etorriko zitzaizkizula burura.

Eta, nolako gizartea nahi duzu zure seme-alabentzat? ELKAR HEZIn, gaur egun nagusitzen diren balioen gainetik, benetako ZORIONTASUNA bidegarri egingo duen jendartea da amesten duguna, eta ametsaren bidean goaz IKAS KOMUNITATE osoa. Pertsona kontzienteak, kritikoak, solidarioak, konprometituak eta ekintzaileak heztea da helburua, hankaz gora daukagun mundua eraldatzeko gai direnak.

ADI LAGUN, IKAS KOMUNITATE proiektuaren barruan kokatzen den *Gatazken prebentziorako eta kudeaketarako eredu dialogikoaren* lan ildoan ekarpen bat gehiago izan da, Ausarten klubaren, giza ezkutuen, tertulia literarioen eta batzorde mistoen osagarri. Izaten eta elkarrekin bizitzen ikasteko oinarriak ezartzen, horretan jartzen ditugu gure indar guztiak.

BIDEA

Eider Eibar ilustratzaileak gidatutako tailerrak abiapuntu harturik, irudimenari hegan egiten utzi, pertsonaiak sortu eta hauen arteko harremanetan sakondu genuen, egunerokoan gertatzen diren gorabeherak aztertu eta egoera gatazkatsuen ebazpen dialogiko eta baketsuak bilatuz, zein hauek prebentzeko bideak proposatuz.



Ondoren, ikasle eta familien artean, 4 horma-irudi margotu genituen. Bertan islatzen dira bidean ikasleek egindako hausnarketak eta bizi izandako emozioak. Arteak, ideia eta sentimendu horiek guztiak gorpuzteko aukera eman digu. Aurrerantzean, beraz, ilusioak erditu dituen 12 pertsonaia hauek bidelagun izango ditugu, elkarbizitza positiborako gakoak gogorarazpen eta laguntzaile gisa.

ADI saguzarra,

Saguzar batek eman zion hasiera bidaiari, ADIk. Esanahiz betea dagoen izena da: korrika eta presaka bizi garen garai honetan, beharrezkoa da gure burua orainean eta gauden tokian kokatzeko tartea hartzea, osterantzean nekez biziko dugu bizitza modu kontzientean. Hau da pertsonaia honen ize-nak iradokitzen duena: Adi, arretaz bizi, zure buruari erreparatu baina baita inguruari ere, eta gertatzen zaizun/gertatzen diren gauzez ohartu, izan ere, konturatzea baita ondoren ekiteko lehen pausua.



Guk egin dugu gure aukera,
eELKAR HEZI.
 gin zeurea orain.

Zatoz gu ezagutzera
 Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko: 943718272.

www.elkarhezi.eus

Hautzaindegia, HH eta LH: Arantzazuko ama IB. 943 71 82 72

DBH eta Batxilergoa: Santa Marina 2. 943782870.



AGENDA

01

URTARRILA

AGENDA

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



ODOL ATERALDIA

> URTARRILAK 12 / 17:00

Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

BERTSO SAIOA

> URTARRILAK 5 / 22:30

ERREGE BEZPERAKO SAIOA



Bertsolari txapelketa nagusiko finaleko 8 bertsolarietatik 7 (Unai Agirrek ezin du etorri) ariko dira Zubikoan. Sarrerak (10€) aurrez salgai Txokolateixan. Zubikoan.

AUTOFORMAKUNTZA

> URTARRILAK 22 / 18:30

'NAZARETEKO JOSU'

'Nazarateko Josu: testu historikoetatik zenbait ondorio sozio-ekonomiko eta kultural' du izenburua Gaztetxean egingo den autoformakuntza sioak. Antixena gaztetxean.

EKAIN-TXOU

Pailazo
ikuskizuna> URTARRILAK 14
GAZTETXEAN, 18:00

Antixena gaztetxean haurrentzako ikuskizuna antolatu dute urteari hasiera emateko. Oraingo honetan Ekain Ibargurenen 'Ekain-Txou' saioaz gozatzeko aukera izango dugu. Jolasa, mimika, abilezia eta umorez jositako saioa da, haur naiz helduentzat. Sarrerak (5€) Mizke eta Kikun salgai. (2 urte artekoak doan).

KONTZERTUAK

> URTARRILAK 6 / 22:30

GOVERNORS+KIMERA



Arrasateko *Governors* eta Oñatiko *Kimera* rock taldeak. Sarrera 8€. Gaztelekuan.

> URTARRILAK 7 /

MURSEGO

Maite Arroita jauregi, txelotzaren kontzertua eguerdi partean. Gaztetxean.

> URTARRILAK 12 / 22:00

VANCOUBER

Legazpiko *rock, blues, funky* eta *punk* taldea Pako tabernan.

> URTARRILAK 19 / 22:30

Glaukoma+Autobus Magikoa



Rap-reggae taldeen kontzertua. Sarrera: aurrez 8€, takilan 10€. Gaztelekuan.

> URTARRILAK 20 / 16:00

GABONEN AURKAKO
JAIALDIA

Antiligen Berlin), R.A.S. Ikaara, Üther, Paniko, Vegan Piranha (Iparralde), Blank Slate (Frantzia) eta Lokuria taldeak Gaztetxean.

> URTARRILAK 21 / 19:00

ABEREH

Rocka eta grunge akustikoa jorratzen dituen Erik Berganzaren (Aberreh) kontzertua. Antixena Gaztetxean.

> URTARRILAK 26 / 19:00

BI BALA



Aitzol Barandiaran eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariek sortutako rock taldearen kontzertua. Antixena Gaztetxean.

BATUAK S.L.

MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



ANTZERKIA 'Txerriboda'

> **URTARRILAK 28 / 19:30**

BEHIND

Behind taldearen (Javier Irigoyen eta Gerardo Sagasti) kontzertua. Pako taberna.



ANTZERKIA

> **URTARRILAK 28 / 18:00**

HAURRENTZAKO ANTZERKIA



Markeliñe taldeak 'Euria' antzezlan (Ikuskizun Onenari 2017ko Feten saria) taularatu du, 6 urtetik gorako neska-mutikoei zuzenduta. Maite dugun norbait joaten zaigunean gertatzen denari buruz hitz egiten du. Sarrera: 3,5€ (Aurrez <http://bibe.me> atarian). Santa Ana antzokian.

> **URTARRILAK 21**
Santa Ana, 19:30

Ezkontza festa da. Parranda. Itxurakeria. Pozik ez egoitea ezinezkoa den egun berezia. Egun horretan guztiok bihurtzen gara aberatsak ez ezik, erromantikoitsu. Txerri hipokritak, izugarrizko Txerriboda baten protagonista. Horixe da, hitz gutxian, Hika Teatro taldearen lan berriaren mamia. Narrazio basatia, zuzeneko musika eta umorea ditu ardatz Agurtzane Intxaurreagak zuzendutako lanak. Zu ere gonbidatuta zaude ezkontza basati honetara. Sarrera: 10€. (Aurrez <http://bibe.me>)



ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



NEGUKO GIDA. Urtero bezala, Gabonetako oporren atarian liburu gomendagarrien gida argitaratu du Udal Liburutegiak, eskualdeko gainerako liburutegiekin batera. Hizkuntza eta eduki aldetik kalitate aipagarria duten liburu, CD eta DVDak bildu dituzte, adinka sailkatuta. Liburutegian bertan eta www.onati.eus webgunean kontsulta daiteke gida.

MERKATU TXIKIA

- > **KLASE PARTIKULARRAK** emateko prest nago LH edo DBH 1-2 mailako haurrei. Magisteritza ikaslea naiz. Deitu beldurrik gabe. 688 867 480
- > **PABILIOIA ALOKAGAI EDO SALGAI** Berezaio auzoan. Harremanetarako: 677 425 822..
- > **GARAJE ITXIA SALGAI** Ugarkalde auzoko 5-6 atarian. Interesatuak deitu: 610 751 017 edo 647 515 257.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI

Tel.: 943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Urtarrilak 3, 4, 12, 13, 14, 22, 23 eta 31. Otsailak 1.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Urtarrilak 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25. Otsailak 2, 3 eta 4.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Urtarrilak 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Urtarrilak 10, 11, 19, 20, 21, 29 eta 30.

Argi pulltsatu bidezko fotodepilazioa (IPL)

Depilazio berrizartekaria modernoa eta berrizartekaria.

Oñati

Olakua 1 ☎ 943 71 67 13 onati@nomasvello.com

FOTODEPILAZIOA IPL GAZTETZEA OPARI TXARTELAK AZALEKO GARBIKETAK

Jarrai gurea sareetan

www.nomasvello.es

Kale Barria (II)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Orain hurrengoan esaten genuen bezala, Foruen plazatik gorako kale horien xehetasunak azalduz joango gara. Hau da, **Kale Barria, Atzeko kale eta euren luzapenei buruzkoak**. Gaurkoan, hasteko, eremu horretan geratu zaizkigun **eraikin interesgarri batzuk** nabarmenduko ditugu. Hainbeste mendetan zehar aldaketa ugari izan ditu kale-arte horrek, jakina.

ETXE ETA ERAIKIN AZPIMARRAGARRI BATZUK

Hemen ere, Kale Zaharrean eta plaza nagusian lez, berrikuntza eta ordezkapen asko gauzatu da denboraren joanean. Kontuan izanik, gainera, 1488ko sute beldurgarriak inguru gehiena kiskaldu eta hondatu zuela. Hala ere, **badira lehenengo itxurari eutsi dioten lagin aipagarriak**. Batzuk beste batzuk baino gehiago. Denak aztertzeke lekurik ez dugunez, hona gure aukeratxoak:

Lazarraga jauregia

Udaletxearen aldamenean eta Atzeko kalearen hasieran kokatzen den eraikin-multzo hau eta bere ingurua ditugu, dudarik gabe, Oñatiko berezitasunik azpimarragarrienetakoak. Erdian agiri den **dorre garaia Gebaratarrek** jasoarazi zuten Erdi Aroan, eta XV. mendean **saldu zioten Lazarragatarren leinuari**. Hauek **zati berriak** erantsi zizkieten jatorrizko dorreari XVI. eta XVIII. gizaldien bitartean: plaza aldera begira dagoen jauregia fase desberdinetan, eta kalean gora Labekoa deitzen dena eta administratzailearen etxeak.

Kanpotik nahiz barrutik oso ondo mantendu den eraikina da; **altxor handiak gordetzen ditu, haltzari, margolan, irudi eta tapiz bikainekin**; familiaren artxibo oso aberatsa dauka eta liburu zaharrez hornitutako biblioteca garrantzitsua. Ezin ahaztu kanpoaldean **dorreko esgrafiatuak**, hainbat ate eta balkoi aipagarri, eta azken urteotan publiko bihurtu den lorategi ederra. Jauregi hau gaur egun Sotomayorreko dukearen (Carlos Martínez de Irujo) jabegoa da, Lazarragatarren oinordekoena, alegia.

Elorriaga etxea

Kontzejuaren ostean eta Kale Barria eta Atzeko kalearen artean aurkitzen da. XVII-XVIII. mendeetan berreraikitako etxetzar honek **hiru fatxada dotore** ditu kale bietara eta kantoi aldera; burdinazko balkoi **zabal ugari** lehenengo pisuan, bi oso luzeak ertzetan eta beste sei laburragoak. Sarreran harlanduzko atetzarraren gainean **Elorriaga** familiaren armarri barrokoa agiri da. Errekarriz osatutako **behebarrua**, ataria, eta eskailera-burua ere azpimarragarriak dira; baita lehenengo pisuko hainbat gela eta altzari ere.



Azkarraga etxearen atzekaldea ezkerrean, eta Don Pedruena eskumarago, 1877ko margolan batean

Elorriagatarren eta hauen oinordekoen ondoren, **Leturiatarrak** egin ziren etxearen jabe XIX. mendearen amaieran. Abizen horretako Lukas dendariaren bitartez aldatuko zitzaion izena eraikinari, hots, **Lukasena**. Leturia-Arrazola familiakoak bizi dira hor azken belaunalditan. XX. mendean, aurrerago zehaztuko denez, era askotako komertzio eta bulegoak egon dira etxepe horretako hiru aldeetan.

Azkarraga etxea

Kanpoko aldetik eutsi dio neurri batean Atzeko kaleko 6an dagoen etxe handi, karratu horrek garai bateko itxurari. Barrutik oso gutxi, 1949ko apirilean izandako suteak kalte izugarriak erakarrizkiolako. Garai hartan **Larrañako Obiaga** baserriko **Madina** familiakoek zume-lantegia zeukaten eraikin horretan. Horregatik **Obixaganekea** moduan ere ezagutu izan da.

Kale aldera ematen duen fatxada nagusiko atea arku zorrotza du, harlandu dotorez moldatua; ateburuko **giltzarrian balkoi** batek **moztutako inskripzioa** ageri da, latinez idatzia; gora-goko **Azkarraga deituraren armarria** Uribarri auzoan izen bereko baserrian dagoena bezalakoa da; eta goienean ikus daiteke mundua irudikatzen duen **bola bat gurutze patriarkalarekin**; lehenago ateburuan egon zitekeena, beharbada. Azkarraga abizeneko hiru alkate egon ziren Oñatin hamar bat aldiz 1744 eta 1840 bitartean.

Don Pedruena etxea

Goraxeago bi kaletara eta kantoi batera ematen duen jauregi itxurako eraikin bikain honek okupatzen duen orubean bi etxe zeuden 1699. urtera arte. **Bernardo Soraluze kapitainak** biak bereganatu, bota eta berria eraikitzea erabaki zuen. Hartarako **Lukas Longa** Mendaroko **arkitekto famatuarengana** jo zuen. Orduan jasotakoak hiru fatxada zituen, egungo lorategian beste etxe bat zegoen eta.

Hasierako ugazaben ondoren, XIX.aren erdialderako **Pedro Larrañaga Urtaza** agertzen zaigu jabe gisa. Hortik datorkio, nonbait, **Don Pedruena** izena. Honen ondorengoek aldameneko etxea erosi, eraitsi eta lorategi pribatua atondu zuten kale bien artean 1895ean.

Oraingo lau fatxadetatik hiru harearrizko harlandu apainez eginak ageri zaizkigu. Etxeak bi armarri barroko handi ditu er-tzetan, Kirriñeneko kantoira begira; eta beste bat, berriagoa, lora-tegi aldera. Etxea luzaroan hutsik eta hondatu samartuta egon ondoren, duela urte gutxi zeharo eraberritu zen barrutik, kan-pokaldea berdintsu mantenduz. Etxebizitzak egin dituzte pisu-tan eta arropa-denda jarri dute beheko solairuan.

Zubia etxea

Aurrekoa baino goratxoago, Atzeko kaleko 8an, aurkitzen den etxe honek ere beste izen bat zeukan XIX. gizaldian. **Josefa Solano** andrearena zen 1867. eta 1871. urteetan. Josefa, Pedro Manuel Solano Miguel eta Maria Katalina Billar Unanue senar-emazteen alaba zen eta amarengandik zetorkion ondare hori. Dena den, 1892ra orduko etxea **Frantzisko Ugarte Ugarte** jaunarena zen. Honek, urte hartan, etxeari solairu bat jasotzeko asmoa azaldu zion udalari, horretarako planoak aurkeztuz; api-tilaren 9an eman zitzaion baimena.


Francisco Ugarteren alaba, Sabina Zirila Ugarte Igartua, **Jose Julian Zubia Elortondorekin** ezkondu zen. Jatorri horretako-ak dira guk ezagutu ditugun Zubiatarak, XX. mendeko hainbat hamarkadetan, Atzeko kaleko festen antolamenduan ospe-tsua izan zirenak. Etxearen gaur egungo izena ere, *Zubiarena*, familia horren bitartez dator, jakina.

Bitxikeria da, baina eraikin honek baratze aldeko bi balkoi-tan, Araotzeko parrokiaren kanpandorreko leiho batean falta den karelaren zatiak dauzka baranda gisa. Frantzisko Ugarte-ren aita Jose Agustin Ugarte Ugarte hargina zen, eta hark lor-tutako elementuak izan daitezke, agian. Etxeak ez du aldake-tarik eduki aspaldiko urteetan.

Gerriko-Urreiztieta etxea

Gerriko oso deitura goierritarra da, Segura eta inguru horietakoa. Noiz etorri ote ziren Oñatira? Ba, **Juan Frantzisko Gerriko** Urkiola gabiriarra 1790ean Maria Joakina Nanclares Ariz-mendi oñatiarrarekin ezkondu zen. Orduan erosiko zuen etxe hau, eta 1818an urtean obrak egiten ari zen. J. F. Gerriko jaun hau **notarioa zen eta zinegotzia eta udal-idazkari karguak** ere eduki zituen. Etxearen aldameneko kantoia 1858. urtean zuzen-du, zabaldu eta eraberritu zen, Antonio Kortazar arkitektoaren zuzendaritzapean. 1870eko udal akta baten deitzen zaio lehe-nengo aldiz Gerrikoren kantoia.

Juan Frantziskoren semeak izan ziren **Kasimiro eta Felix Gerriko Nanclares**: bata herriko alkate liberala hainbat urtez,



Lazarragatarren dorretxea.

bestea San Migel **parrokiako erretore**, 1860 eta 1870ko hama-rraldi gatazkatsuetan. **Martin Urreiztieta** Ormaetxea, berriz, bilbotarra zen, eta Oñatiko udalaren ahalduna Donostian admi-nistrazioaren aurrean. Joakin Urreiztieta Egaña, bere semea, Basilia Gerriko Ibarzabalekin ezkondu zen; Basilia Kasimiro-ren alaba genuen. Urreiztiatarak Madrilera joan ziren, baina gure haurtzaroan urtero etortzen ziren hona udatan, Martínez-Iru-jotarrak, Don Pedrueneko Larrañagatarak eta beste jauntxo ba-tzuen antzera.

Ez da aipatutakoekin kale hauetako etxe interesgarrien zerren-da agortzen, ez horixe. Baina hurrengo atalean eman beharko diogu jarraipena

LURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

IPUIÑA

Olabarriko uztarrigaixak



Larraña auzoko Olabarri baserrixa XX. gizaldixaren erdi inguruan eta gaurko egunian



Askia,
albergia eta
puxetarrixa
ezkerrian; eta
uztarrigaixak
askaan
uretan,
eskuman.
(Fotografixak:
I. Aiastui,
Estenagakua;
eta R. Altuna).



Han ikusten dot Askazubiko Domingo, berak hazittako iri pare gaztiarekin Olabarriko estradan behera datorrela. Etxe bururaiño aillegautakuan eupadia jo eta Felixek, soruan arbi-jorran ebillenak, burua jaso eta han fan xako atxintxika ongietorrixa egittera.

-Zer moduz, Domingo?

-Ederki! Hemen ñatok iri pare gazte honegaz etxetik Ixiura; Ixiutik Koixkarreko eliza ondora; eliza ondotik Drangoestura, eta Drangoestuko gaintxotik goittik behera zuzen hona.

-Ondo dago! Guazen sukaldera, mokautxo bat egittera.

-Estimauta xagok!

Aitor txikiña sukaldeko epelian dago. Eta aittajuna ikusittakuan, barrez hasten da poz-pozik. Aittajunak kiñu bat egitten xao eta amandre Martzeliñek egindako gailleta batzuk eta poltsakadatxo bat gaztaiñerre emun xao disimulan.

Mokaua jan eta gero iri gaztiok eskatu eta sartu zittuain ittuer, eta ondoren kanpoko askara fan ziran uztarrigaixa etaratera. Hari zirixa sartu, kateia erantsi eta tarraska eruan euen larraiñeraíño.

-Itzi degigun hemen uztarrigaixa. Datorren astian etorriko da Fermin, Kale Zaharreko uztarrigiña, eta egingo dau bere lana -bota eben Felixek.

Aitor, dana ikusten eguen isil-isilik; konturaketan zan laister hasi biharko zala ittaurrian iri pare barrixokin sorua boldaketan, aitta Felix atzian ebela akuluagaz: *aida! aida!* esaten.

Aittajuna etxe aldera mobiu zanian, mutikua beragana hurreratu, bi musu emun eta agurtu eben.

-Agur aittajuna, datorren domekan egingo dogu bueltatxo bat Askazubittik.

-Bai, horixe, etorri zatezai! Danbolinkada bat gaztaiña erreko dogu eta hantxe egongo gara gustora kontu-kontari sutonduan. Amandriak eta bixok pozik ikusiko zauegu!

BERBATEGIXA:

Iri=idi; **estrada**=bidia; **arbi-jorra**=atxurragaz arbi-soroko bedarrak kendu; **eskatu**=askatu; **larraiña**=kanpoko atetik sukaldera bittarteko lekua, hau da, baserrittako bebarua; **uztarrigaixa**=uztarrixa egitteko egurra edo anporra, pagua aixkomente; **uztarrigiña**=**uztargillia**=**uztarrigillia**=uztarrixak egitten zittuen langillia; **ittaurrian**=irixen edo behixen aurretik fatia sorua labraitteruzkuan, ganaduok nundik fan bihar diran jakin degixein.



Neska gazte dotoriak

Ordurako ondo modernak ziran, ba, neska gazte honeik. **Aldaketa-urtiak** ziran, izan be. Bigarren Errepublikari **haize eta moda barrixak** ekarri zittuan arlo desbardiñetara: soiñeko koloretsu eta motzaguak, orrazkera ausartaguak, ohitura libretxuaguak. Politikan ez ezik, **irakaskuntzan be igarri zan** barrikuntzarako joeria gure artian: 1928 eta 1936 bittartian Oñatin jardun euen bigarren mailako institutuak eta herri-eskola euskaltzaliaguak sakon samar eragin otsain herriko gizartiar. Zoritxarrez, ez eben kanbixogirua asko iraun, 1936ko **gerra gogor-zitalak** eta ondoren etorri zan **errepresio latz-luziak** pikutara bialdu zittuaillako orduko asmo, ilusiño eta ametsik gehixenak.

Argazkixan agiri diran gaztion itxuriak garbi asko erakusten dosku garai haretan nabarmendu zan **aldaketa-guria**. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue euron izenak:

Genoveva Zelaia, Zañartuko Upaingua; **Pilar Arrue**, Arantzazu kalekoa; **Leonor Zulueta**, guraso oñatiarrak eukan amerikana, Galartzatarren lehengusiña; **Maxima Zelaia**, Zañartuko Upaingua, Genovevaren ahizpia; **Margarita Iturmendi**, Kale Barriko *Naparrena* tabernakua; **Mercedes Letamendi**, plazako tela-dendakua; eta **Kontxita Medrano**, Bidebarrietakua, albaitarixaren alabia.

J. E.

Fotografia gerra aurtxokua izango da, orain dala larogei urte pasatxokua. Jatorrizko kopixia eskuratu dogun arren, eztakar bertan nork atara eben.

Orain



banak importa



BANAK

Zerkaosteta, 3

Tel.: 943 71 10 11



zuretako
zuzenean...

SOFA LEKU - KOLTXOI LEKU

Zigarrola, 1

Tel.: 943 79 15 03



grupo
muebladora
mondragonesa

Sofa
leku

koltxoi
leku



centro hogar MUEBLES

1956-2016

60

URTE
ESKERRIK ASKO !!